# Astiro eta letra ona

*GUSTATUKO litzaidake irakurtzea -eta begiratzea- lasai gure asaben mendi-kontaketak. Kontsultatu ahal izatea nola joaten ziren mendira orain dela 70 urte, nolakoak ziren Euskadiren orduko mendiak, eta Pirineotakoak, Pikoetakoak eta Guadarramakoak, zer kontatzen zuten Alpeetara ausartzen zirenek eta zer jakiten zen munduko mendizerra handiei buruz: Himalaia miatzen zuten britainarrek edo Hego Amerikako goizabaldiraino heltzen ziren poloniar eta alemanek kontatzen zituzten berri haiek.*

*20.hamarrurtekoa sasoi erakargarria izango bide zen mendi-abenturaren zirrara sentitzen zuten haientzat. Beren inkorporazioa zen munduaren historiaren orri batera, zabaldu berria, ustekabe eta promesez betea.*

*Igon eta jaitsi egiten duten bideak zapaltzearen ilusioa aurkitzea zen hura, herriak elkarren artean komunikatu zitezen balio izan zuten bideak eta orain gailurretara, puntu gorenetara hurbiltzeko balio zutenak, paisaia goitik ikusi ahal izateko, horretarako oinak ... eta eskuak ere erabili behar zirelarik.*

*Horizontala soil-soilik zen mundu bat apurtzea zen eta hirrugarren dimentsio bat eranstea, altuera, eta aurkitzea hormak ez zirela oztopo gaindiezinak baizik eta, alderantziz, gozamenerako motiboa eta gainditzeko joranarentzako erronka. Eta gauza bera elur eta izotzarekin. Hutsunea, eremu debekatua suposatzen ez zutela kontutan hartzea. Egiaztatzea gailurretarako ailegabidea, artzainak uxatzen zituen glaziare zuri, hotz eta gogor hori izan zitekeela hain zuzen ere.*

*Horizonteak pausoz pauso hedatuz joatea. Gure mendietatik hasiz. Haitzak eskalatzea, batez ere Anbotokoak, mandoen bitartezko eta bertarkoen laguntzaren bidezko espedizioa antolatzea Bilboko jende aberatsa Gorbeia urrunera eramateko, Najerara joatea denboraldia noiz aldatuko duen itxarotera San Lorenzo ezezaguna Madrileko alpinista batzurekin igoten saiatzeko ... eta, bapatean, eskemak apurtzea, eta Zornotzako mendigoizale batek kontatzea igon duela, berak ere, eta bakarrik, oinutsik eta mendiaren oinarriraino artzain batek lagundua, Bulneseko Naranjo igonezina ... eta gero Mont Blanc eta Cervinoa igon dituela, eta Teide, Sinai eta Kilimanjarora igon daitekeela eta Himalaian egona izan dela. Bapatean dena da posible. Alpinismoaren protohistoria gure gistoria bihurtzen da. Garrantzi handiko mementua da.*

*Ba bai, hori danori esistitzen da, kontaturik dago jadanik eta orain guztientzat dago eskuragarri. Argitaratzear daude, emanaldi faksimileko hiru tomotan, Pyrenaicaren lehen urteetako aleak: aldizkariaren lehen 19 aleen 850 orrialdeak, argitarapenaren lehen bi garaiei dagozkienak, 1926. eta 1936.urteen artekoak. Durangoko Azokan agertuko dira.*

*Baino salduko zaizkie astiro irakurriko dituztela hitz ematen dutenei soilik (mendira ere horrela joan beharra dagoela esaten bait dute). Denbora haietako mendi-literatura sendoa eta hunkibera dastatuz. Gaur egun ezagutezinak gertatzen diren edo beren degradazioa dela eta sentimendu nostalgiko batez ezagutzen diren leku askotako argazkiez interesatuz. Konbentzitutako haien itxura erdibukoliko erdimilitarrekin eta aparteko emakume mendizale haien gona luzeekin eta aire begiratuarekin dibertituz. Gonbaratuz ordutegiak, salneurriak, garraio-motak eta ohitura erligioso eta profanoak. Egiaztatuz, azken finean, mendizaletasunaren betidaniko erakargarritasuna.*

# Despacito y buena letra

YA me gustaría leer -y mirar- tranquilo los relatos de montaña de nuestros abuelos. Poder consultar cómo iban al monte hace 70 años, cómo eran entonces los montes de Euskadi y los del Pirineo, Picos y Guadarrama, qué contaban los que se aventuraban a ir a los Alpes y qué se sabía de las grandes cadenas de montañas del mundo: noticias que llegaban de los británicos que exploraban el Himalaya o de los polacos y alemanes que llegaban hasta el altiplano de América del Sur.

Los años 20 tenían que ser una época apasionante para aquéllos que sentían el gusanillo de la aventura montañera. Era su incorporación a una página de la historia del mundo, recién abierta, llena de sorpresas y de promesas.

Aquello era descubrir la ilusión de pisar los caminos que suben y bajan, caminos que habían servido para que los pueblos se comunicasen y que ahora servían para acercarse a las cumbres, a los puntos más altos, a la posibilidad de ver los paisajes desde arriba, utilizando para ello los pies ... e incluso las manos.

Era romper un mundo sólo horizontal e introducir la tercera dimensión, la altura, y descubrir que las paredes no eran un obstáculo insalvable sino que podían ser, al contrario, un motivo de disfrute y un reto al afán de superación. Y lo mismo la nieve y el hielo. Darse cuenta de que no suponían un hueco, una zona prohibida. Constatar que la vía de acceso a las cumbres podía ser precisamente ese glaciar blanco, frío y duro que repelía a los pastores.

Ir ampliando paso a paso los horizontes. Empezando por nuestras montañas. Escalar peñas, sobre todo cerca del Anboto, organizar una expedición con mulos y la ayuda de los aborígenes para llevar gente distinguida desde Bilbao hasta el lejano Gorbeia, ir a Nájera a esperar a que cambie el tiempo para intentar ascender al desconocido San Lorenzo con unos alpinistas de Madrid ... y, de repente, romper los esquemas y que un mendigoizale de Amorebieta nos cuente que ha subido, también él, pero solo, descalzo y acompañado hasta la base por un pastor, al inaccesible Naranjo de Bulnes ... y que luego ha subido al Mont Blanc y al Cervino, que se puede subir al Teide, al Sinaí y al Kilimanjaro y que ha estado en el Himalaya. De repente todo es posible. La protohistoria del alpinismo se convierte en nuestra propia historia. Es un momento clave.

Pues sí, todo eso existe, está ya contado y ahora va a estar al alcance de todos.

Se van a publicar, en tres tomos de edición facsímil, los números de los primeros años de Pyrenaica: 850 páginas de los 19 primeros números de la revista, correspondientes a las dos primeras épocas de la publicación, entre los años 1926 y 1936. Aparecerán en la Feria de Durango.

Pero sólo se venderán a los que prometan leerlos despacio (que es como dicen que hay que ir al monte). Saboreando la recia y emotiva literatura montañera de aquellos tiempos. Interesándose por las fotos de muchos sitios hoy en día irreconocibles, o que se reconocen con un sentimiento nostálgico ante su degradación. Divirtiéndose con las pintas semibucólicas semimilitares de aquellos convencidos y con las faldas largas y el porte recatado de aquellas excepcionales montañeras. Comparando horarios, precios, modos de transporte y costumbres religiosas y profanas. Comprobando, en definitiva, el atractivo de siempre del montañismo.

**Txomin Uriarte**